

IPARRALDEKO EKOIZPENEN KATALOGOA

Catalogue des
productions
d'Iparralde

BA DA!

56. DURANGOKO AZOKA

2021eko abenduaren 3tik 8ra

www.durangokoazoka.eus



Argitalpenen katalogo hori **Euskal kultur erakundeak proposatzen du Durangoko azokaren karietara.**

EKEren laguntzarekin azokaren 56. edizioan parte hartzen duten egituren lanak biltzen ditu. Katalogo honetan, 2021ean plazaratu diren ekoizpenak aurkituko dira: **liburuak, disko-liburuak, diskoak eta beste hainbat kultur ekoizpen**. Izan dadin literaturan edo musikan, 42 lan hauen artean eskaintza aberats eta zabal bat atzemanen da: Haur literatura, gaurko musikak, olerkia, musika klasiko berria, eleberriak, lekukotasunak, funk-pop-rock-a,

....

42

BERRITASUN . NOUVEAUTES

28

LIBURU . LIVRES

3

DISKO-LIBURU . LIVRES - DISQUES

7

DISKO . DISQUES

4

BESTELAKO EKOIZPEN . AUTRES PRODUCTIONS

Ce catalogue est proposé par **l'Institut culturel basque dans le cadre du Salon de Durango en Biscaye**.

Il rassemble les productions des structures qui participent au Salon avec l'aide de l'ICB.

On y retrouve 42 nouveautés toutes sorties en 2021: **livres, livres-disques, disques ainsi que d'autres produits culturels**. Que ce soit en littérature ou en musique, les 42 nouveautés de ce catalogue présentent une offre riche et variée : Littérature jeunesse, musiques actuelles, poésie, nouvelle musique classique, romans, témoignages, funk-pop-rock

PARTAIDEAK - Les participants

maiatz.

elkar

ikas

ZORTZIKO
ARGITALETXEA



belarri^L



SAROIA

BURU
BELTZA



Argitaletxeak · Maisons d'édition: Gatuzain, Ikas, Lako 16, Maiatz, Zortziko, ZTK & Elkar

Diskoetxeak · Labels discographiques: Saroia & Belarri

Bestelako egiturak · Autres structures: Iparraldeko Ikastolak, Xofaldia produkzioak, Hatsa elkartea

Autoekoizpenak · Autoproductions: Buru beltza elkartea

AURKIBIDEA - Sommaire

LIBRUAK · Livres

5

DISKO-LIBRUAK · Livre - Disques

12

DISKOAK · Disques

13

BESTELAKO EKOIZPENAK · Autres productions

16

ELKAR ARGITALETXEA

Anai Artea : 1969-2021 elkartaren historia

Egilea | auteur: Txomin Hiriart-Urruty

Generoa | Genre : Historikoa · Histoire

Txomin Hiriart-Urruty historialariak, Anai Artea elkartaren 50 urteko historioa aurkezten du. 1969an sortu elkartea hau, Frantzian errefuxiatu euskal militanteen laguntzeko sortua izan zen.

L'historien Txomin Hiriart-Urruty retrace l'histoire de l'association Anai Artea, fondée en 1969 dans le but de venir en aide aux militants basques réfugiés en France.

Bekatorosak

Egilea | auteure: Dom Campiston

Generoa | Genre : Eleberri grafikoa · Roman graphique

Zazpi maitasun eta borroka istorioren lekukotza eta aitortza Homofobiaren aurkako aldarria. Dom Campiston, liburu grafiko honen sortzailea, Alduden bizi da (Nafarroa Beherea) eta 27 urte ditu. 2019ko udan Nafarroa Behereko hainbat herri txikitako zazpi lagun elkarrizketatu zituen, eta haien lekukotasunak liburu honetan bildu eta ilustratu ditu.

Sept histoires d'amour et de luttes comme manifeste contre l'Homophobie. Dom Campiston, l'auteure de ce roman graphique, vit aux Aldudes (Basse Navarre) et a 27 ans. Pendant l'été 2019, elle a recueilli les témoignages de sept hommes et femmes, tous des amis d'enfance, qui parlent de leur homosexualité et les a rassemblés et illustrés dans ce livre.

Teresaren mendekua


Egilea | auteur: Xan Idiart

Generoa | Genre : Ipuin bilduma · Recueil de nouvelles

Irudimenez, ametsez eta umorez betetako istorio laburren bilduma, batzueta harrigarriak, beste batzueta zirikatzaileak.

Un recueil de nouvelles pleines d'imagination, de rêve et d'humour, tantôt étonnantes, tantôt provocatrices.

IKAS PEDAGOGIA ZERBITZUA



Hartzaño eskolara doa

Egileak | auteurs: Alain Broutin, Frédéric Stehr (ilus.)

Generoa | Genre : Haur literatura 3 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 3 ans

Eskolako bidean, Hartzañok basurdea, axeria, igela eta apoa aurkitzen ditu. Bakoitzak jarduera interesgarria proposatzen dio : tindua, orea...baina eskolara berantean heldu da....Eskolatik kanpo ere ikasten ahal dea ?

Gaiak : lehen ikasgaiak, eskola sartzea, ametsa

Sur le chemin de l'école, Calinours rencontre le sanglier, le renard, la grenouille et le crapaud. Chacun a une activité très intéressante à lui proposer: peinture, pâte à modeler ... Pour finir, Calinours arrive en retard à l'école... Peut-on apprendre aussi en dehors de l'école ?

Thèmes : premiers apprentissages, rentrée des classes, rêverie

LAKO16 ARGITALETXEA



Bi neraberen EHko itzulia

Egileak | auteurs: Jakes SARRAILLET, Nathalie Jaureguito


Generoa | Genre : Gazte eleberri ilustratua · Roman jeunesse illustré

Bi lagun nerabek erabakitzentzute Euskal Herriaren itzulia egitea bizikletaz. Hamabi egunez eta etapa ezberdinetan, gure herria zeharkatuko dute, Iurrealde guzietatik pasatuz, jende berriak ezagutuz eta abentura txikiak biziz.

Adin bereko irakurlegoarentzat eta berezikiago euskararen ikaskuntzan ari diren B2 mailako euskaldunentzat paratua den liburu hau irakurterrexoa, atsegina eta lasaia da. Gainera, Euskal Herria hobeki ezagutzeko aukera bat izan nahi du.

Deux amis adolescents décident de faire le tour du Pays Basque en vélo. Ils traverseront notre pays en douze journées et étapes différentes, passant par toutes les provinces, rencontrant de nouvelles personnes et vivant de petites aventures. Ce livre, à destination d'un public du même âge et plus particulièrement des baskophones de niveau B2 se veut de lecture facile, agréable, apaisée et a pour ambition de faire mieux connaître aux lecteurs le Pays Basque.

MAIATZ ARGITALETXEA




2022

Egilea | auteur: Eric Dichary

Generoa | Genre : Poesia · Poésie

Poesia etorkizunerako arma bezala miresteko, amesteko eta salatzeko gure jendarte zibernetizatu zikoitza.

La poésie comme arme du futur pour admirer, rêver et dénoncer notre société cybernétisée et égoïste.



Aldudentik mundura

Egilea | auteure: Gaby Etchebarne

Generoa | Genre : Biografia · Biographie

Alduden sorturik, Gaby serora joan zen Laos eta Argentinara behartuen laguntzera eta gero borroka sozialetan murgildu zen. Bihotz zabaleko emazte honek bere biziaren kontakizuna eskaintzen digu.

Née aux Aldudes, partie religieuse au Laos et en Argentine au service des pauvres, puis plongée dans les luttes sociales, Gaby au grand cœur livre le récit de sa vie.

Euskara ikasten dut

Egilea | auteur: Beñat Laxague

Generoa | Genre : Euskara ikasteko metoda · Méthode d'apprentissage de l'euskara

Frantsesa hizkuntza dutenentzat pentsatu obra da, frantsesetik abiatuz moldatua urratsez urrats.

Méthode d'apprentissage du basque pour francophones, construite à partir de la langue française.

Esperantxak erran deit

Egileak | auteurs: Frantxo Caset, Sandine Caset (ilus.)

Generoa | Genre : Poesia · Poésie

Euskal Herria Pagolako poeta xiberotarraren bihotz zabalaren bitartez.

Le Pays Basque à travers le grand cœur de l'écrivain poète souletin de Pagolle.

Ezkutuan dagoena

Egileak | auteures: Marisa Arruabarrena, Elene Tamayo (ilus.)

Generoa | Genre : Poesia bilduma · Recueil de poésie

Emazte baten bizi eta bilakaerak, eraikuntza baten mirail, irekitzen den ate baten gisa.

Recueil de poésies en euskara relatives à la construction d'une femme, comme une porte s'ouvrant à la vie.



Elene Tamayok irudiztatuak



Heriori ebatsitako poemak

Egilea | auteur: Joxe Luix Agirretxe

Generoa | Genre : Poesia · Poésie

Lezoko idazle poetak sorterriari botatzen dion so amultsua, iragana, memoria, bizia eta maitasuna uztartuz.

Le regard tendre du poète de Lezo posé sur le passé, la mémoire, la vie et l'amour.

maiatz.

Emilio Lopez Adan

Emilio Lopez Adan

Emilio Lopez Adan

Borroka armatua Euskadin
1967–2011

Borroka armatua Euskadin
1967–2011

Borroka armatua Euskadin
1967–2011



Hirugarren liburukia
1991-2011

Bigarren liburukia
1981-1990

Hirugarren liburukia
1991-2011

maiatz.

maiatz.

maiatz.

Borroka armatua Euskadin 1967-2011

Egilea | auteur: Emilio Lopez Adan "Beltza"

Generoa | Genre : Ondare historikoa · Mémoire historique
3 ale · 3 tomes

Euskal Herriak bizi izan duen borroka armatuari buruzko memoria lan erraldoia. 2400 orrialdeetan, dokumentu asko ekintzaile, prentsa, alderdi politiko eta botere publikoengandik.

Une somme de 2400 pages sur la mémoire de la lutte armée que vécut le Pays Basque avec de nombreux documents des organisations, partis politiques, de la presse et des pouvoirs publics.

Amaiur Epher

PROFETEN
IRUZURRA



maiatz.

Profeten iruzurra

Egilea | auteur : Amaiur Epher

Generoa | Genre : Eleberria · Roman

Funtzionario baten biziaren kontakizun honetan, Amaiurrek kultura erreferentzia eta ironiaz bete ixorio frango kontatzen dizkigu, gure jendarte garaikideari lotuak direnak.

A travers le récit de la vie d'un fonctionnaire, Amaiur raconte une histoire ponctuée de références culturelles et d'ironie sur notre société basque moderne.

ZORTZIKO ARGITALETXEA



Harribeltzeta

Egilea | auteur: Joseba Aurkenerena Barandiaran

Generoa | Genre : Ipuin bilduma · Recueil de contes

Harribeltzeten gauza arras harrigarriak gertatu eta gertatzen ari dira. Bertakoak istorio bitxi eta kilikagarriez mintzo dira. Gertakizun horien oihartzuna gogoan geldituko zaizu biziki ongi estekaturik. Euskal Herriko edozein herri ordezka dezakeen balizko herri honetan, 50 ipuin historiko-mitologikoz osatu liburu honek iraganean finkatzen ditu erroak, orainaldia zeharkatzen du eta etorkizunari begiratzen dio azkarki.

Il se passe de drôles de choses à Harribeltzeta. On parle-là d'histoires vraiment extraordinaires ! De celles qui vous restent en mémoire pour un temps... inexploré encore ! Ces 50 comptes historiques et mythologiques traversent le passé, bousculent le présent et vous embarquent dans le futur d'un village fictif et cependant très représentatif du Pays Basque.

Mamutxa Alaiak

Egileak | auteurs: Anne Fruchon, André Goupille

Generoa | Genre : Haur literatura · Littérature jeunesse

5 titulu · 5 titres

Antton erlamandoa eta Maddi armiarma · Ganix kurkuilua . Pantxika kattalingorria . Turturturtur zorri familia · Txioti papogorria

"Mamutxa Alaiak" istorio ttipien bilduma ttipia da, eta istorio horietan biziki garapen egokia ikusten ahal da. Den-dena ttipia da bilduma honetan, etxeko ttipiei kondatzeko moduko istorio ttipiak, formato eta prezio ttipian.

Drôles de bestioles est une mini-collection de mini-histoires illustrées, toutes mimis, à raconter aux petits, en mini-format pour un mini-prix!

Har 3 minutu zuretako

Egilea | auteur: Libe Goñi Garate

Generoa | Genre : Ipuin bilduma · Recueil de contes

3 minutu gutxi dira... Ber mementoan 3 minutu anitz dira... 3 minutu gutxi dira ongi betea den egunari kentzen badizkiozu, baina anitz dira pairamen fisiologikoari eta psikologikoari kentzen bazaizkie. Arras simplea, baina denbora berean arrunt bistakoa idurituko zaizun konzientzia hartze baten bidez, Libek ariketa praktiko eta errexekin lagunduko zaitu. 3ko arau unibertsala bere eginez, zure barnera begiratzera gonbidatzen zaitu, modu argi eta sentikorrean, hobeki senditzu gero besteengana joateko.

3 minutes, c'est peu... 3 minutes c'est aussi beaucoup à la fois... 3 minutes, c'est peu de temps pris sur votre journée déjà bien chargée... Mais 3 minutes, c'est beaucoup de temps pris sur votre souffrance aussi bien physiologique que psychologique. Par une prise de conscience toute simple mais qui vous paraîtra évidente, Libe vous accompagne avec des exercices pratiques et faciles à appliquer. Avec sa règle de 3 originale, elle vous invite à vous tourner vers vous-même, de façon claire et sensible, pour mieux vous tourner, ensuite, vers les autres en vous sentant mieux. Bien mieux !



ZTK ARGITALETXEA



Kronoform

Egileak | auteurs: Juan-Kruz Igerabide, arg. Ihintza-Chloé Hargous

Generoa | Genre : Poesia eta argazkiak · Poésie et photographies

Arte eta poesia liburua, 4 hizkuntzatan...

.....
Un livre d'art et de poésie, en quatre langues...



Musikartzel

Egilea | auteur: Mixel Etxekopar

Generoa | Genre : Lekukotasuna · Témoignage

Euskal preso baten ideia Fleury-Mérogis-en ernatu zen 2004an: xirula ikastea, presondegiaren! Azkenean hurbilago, musika ikastaldiak Lannemezanen hasi ziren 2008an, bai eta urtez urte antolatu kontzertuak, disko baten argitalpena, kanpoko airea sarrarazi nahian, barnekoa zabaldu nahian. Hortarik sortu dira "musikartzelako" kronika hauek...

.....
L'idée d'un prisonnier basque est née à Fleury-Mérogis en 2004 : apprendre à jouer de la xirula en prison ! Après un rapprochement, les cours de musique débutent à Lannemezan en 2008, ainsi que l'organisation de concerts année après année, la sortie d'un album, la tentative de faire entrer l'air extérieur, la tentative d'élargir l'intérieur. C'est de là que sont nées ces chroniques « musikartzel »...

Hirur antzerti erdarazkoen itzulpen bilduma

Egilea | auteur: Jean-Baptiste Orpustan


Generoa | Genre : Antzerki bilduma · Recueil de pièces de théâtre
Marivaux - Giraudoux - Brecht



Jean-Baptiste Orpustan-ek euskarara itzulirik

Bilduma bitxi honek euskarara itzulitako hiru antzezlan biltzen ditu, denak biziki ezberdinak, bai egileen eta gaien aldetik, bai eta idatziak izan diren garaiei dagokienez ere.

.....
Ce curieux recueil rassemble trois pièces traduites en basque, aussi différentes que possible, tant par leurs auteurs et leurs thèmes, que par l'époque où elles ont été écrites.



Nire Olentzero


Egileak | auteurs: Gilles Rivière, Mikel Alkoz (ilus.)

Generoa | Genre : Haur literatura · Littérature jeunesse

Unaik Olentzero bere etxera etorri dela eta bere arditegian ezkutatzen dela uste du. Olentzero ez bada, nor izan liteke ? Gaur egungo ipuin honek etorkinen gaia aipatzen du haurrendako hitzekin eta euskal mito zaharra eguneratzen digu.

Unai pense qu'Olentzero est venu chez lui et se cache dans sa bergerie. Si ce n'est pas Olentzero, qui cela pourrait-il être ? Cette histoire actuelle évoque le sujet des immigrés avec des mots d'enfants et met à jour le vieux mythe basque.

GATUZAIN ARGITALETXEA



Suak eta hautsak - Herri borrokak Frantzian


Egilea | auteur: Hartzea Lopez Arana

Generoa | Genre : Saiakera · Essai

Liburu berri honekin, Hartzea Lopezek Frantziako eta kolonia frantsesetako herri borroka nagusien artera eramanen gaitu, molde kronologikoan eta unean uneko lekukotasunekin, suteen hautsak nora eta nola barreiatzen diren argitu nahian. Ondare eta esperientzia horien guzien ezagutza gure jarduna elikatzeko baliagarri izanen baita.

Avec son nouveau livre, Hartzea Lopez nous emmène au cœur des principales luttes populaires en France et dans les colonies françaises, dans l'ordre chronologique et avec des témoignages actuels, en essayant de faire la lumière sur où et comment se propagent les cendres des incendies.

HATSA ELKARTEA



Hatsaren poesia 2021

Egileak | auteurs: Kolektiboa

Generoa | Genre : Olerki bilduma · Recueil de poésie

Poesia-bilduma honetan, idazle ezagunez gain, idazle hasiberri gazteak ere badira egileen artean, bai eta euskal literaturaren ereduetan edo euskal poesiaren antologietan agertzen ez direnak ere. Denetan, 109 olerkarik parte hartu dute.

Dans ce recueil de poésie, en plus d'écrivains connus, il y a aussi de jeunes écrivains novices qui n'apparaissent pas dans les canons de la littérature basque ou dans les anthologies de la poésie basque. Au total, 109 poètes y ont participé.

ELKAR ARGITALETXEA

**Francoren mende kantatzen genuenean**

Egilea | auteure: Colette Larraburu, Euskal kanta berriaren lagunak (itzulp.)

Generoa | Genre : Historikoa · Récit historique

Disko-liburua (liburua + 17 abestiko diskoa)

Colette Larraburu idazle eta kazetariak euskal kantagintza garaikidearen historiaren zati bat azaltzen du bere azken liburuan.

Francoren diktadura garaian, beren hizkuntza debekatua zegoela, Ipar Euskal Herriko abeslari batzuk (Peio & Pantxo, Etxamendi & Larralde, Guk, Manex Pagola, besteak beste) Hego Euskal Herrira joan ziren kantatzera.

Livre-disque (livre + disque 17 titres)

L'auteure et journaliste Colette Larraburu retrace l'histoire de la chanson basque contemporaine.

Sous la dictature franquiste, alors que leur langue est quasiment interdite, des chanteurs du Pays basque nord (Peio & Pantxo, Etxamendi & Larralde, Guk, Manex Pagola, entre autres) ont soutenu leurs confrères du sud.

Itsaso zabalera

Egileak | auteurs: Maialen Alfaro, (ilus.) Mayana Itoiz

Generoa | Genre : Haur literatura - Ongi izatea · Littérature jeunesse - Bien être

Igo itsasontzira eta etorri gurekin Itsaso zabalera, ea zer aurkitzen dugun oraingoan! Istorioa bizitzeak aukera emanen dio haurrari, bere gorputza entzuteko, konfiantza indartzeko, lasitzeko... Liburuarekin batera audio batzuk daude CD formatuan.

Embarquez à bord, allons au large et voyons ce que nous découvrirons cette fois-ci ! Vivre l'histoire permettra à l'enfant d'écouter son corps, de renforcer sa confiance en soi, de se calmer... Le livre est accompagné de quelques audios au format CD.

ZTK ARGITALETXEA


Txori M

Egileak | auteurs: Mixel Etxekopar & Christian Vieussens

Generoa | Genre : Album ilustratua eta diskoa · Album illustré et disque


"Txori M", Mixel Etxekopar-ek idatzi René Martinez gaskoi kondalariaren alegia baten xiberotar bertsioa da, Christian Vieussens musikari margolariak marrazki edo margo ederrez apaindu duena. Tarteka, albumari musika gehitua izan zaio...

"Txori M" est la version souletine écrite par Mixel Etxekopar d'une fable du narrateur gascon René Martinez. Le peintre-musicien Christian Vieussens l'a paré de ses belles peintures. Cet album s'accompagne parfois de musique.



BELARRI EKOIZPEN ETXEA

Elixa Xurian



Egilea | auteure: Solange Añorga

Generoa | Genre : Musika klasiko berria · Nouvelle musique classique

Solange Añorga soprano kantariak, "Les Arts Florissants" talde barrokoko kideak eta Frantziako "Victoires de la Musique Classique" sariaren irabazle hirukoitzak bere lehen diskoa aurkezten digu. Lana, euskal kantu herrikoi eta ezagunez osatua da, eta Josean San Miguelek estilo "neo-klasikoan" moldatua du.

La soprano Solange Añorga, membre du groupe baroque "Les Arts Florissants" et triple lauréate des "Victoires de la Musique Classique" française, présente son premier album, composé de chants connus et populaires de la chanson basque, arrangés par Josean San Miguel dans un style néo-classique.

Otazu blues



Egilea | auteur: AlboSax

Generoa | Genre : Gaurko musikak · Musiques actuelles

Mixel Ducau-ren proiektu berria: alboka hirukote bat, saxofoi laukote bat, sekzio erritmiko bat, Mixel albokan, albokotean eta saxofoi sopranoan.

Mixel Ducau-ren gaurregungo musika herrikoiaren ikuspuntu berezi eta modernoa.

Nouveau projet de Mixel Ducau : un trio d'alboka, un quatuor de saxophones, une section Rythmes, Mixel à l'alboka, à l'albokote et au saxophone soprano.

Le point de vue unique et moderne de Mixel Ducau sur la musique populaire contemporaine.

Pozgarria da



Egilea | auteur: Ensemble 0

Generoa | Genre : Musika klasiko berria · Nouvelle musique classique

"*Pozgarria da egun berrira beste behin iratzartzea eta oraindik ere bizirik naizela konturatzea.*" Petar Klanac konpositore Kroaziarrak Bitoriano Gandiagaren olerkiak bere estilo garaikidean musikatu ditu.

"C'est réjouissant de se réveiller avec le jour nouveau et de réaliser que je suis toujours en vie." Les poèmes de Vitoriano Gandhiaga mis en musique par le compositeur croate Petar Klanac dans son style contemporain.



Zirimiri

Egilea | auteur: Larre Alde Trikitilariak

Generoa | Genre : Herrikoia · Musique populaire

Larre Alde Trikitilariak plazaz plaza ibili dira musika jotzen. Zirimiriak bezala, haien piezek herriko giroa delikatuki busti dute.

Disko honetan, bi anaiek 12 pieza famatuak bildu dituzte.

Les Trikitilaris Larre Alde ont joué leur musique de village en village, laissant derrière eux la résonance de ces airs comme le zirimiri (bruine en basque) qui mouille délicatement les places.

Dans ce disque, les deux frères ont rassemblé les 12 airs les plus connus.

SAROIA EKOIZPEN ETXEA

Artizar

Egilea | auteur: Kalakan

Generoa | Genre : Ohiko eta gaurko musika · Musique traditionnelle et actuelle

KALAKAN taldeak bere 10 urteak « ARTIZAR » izeneko disko berriarekin ospatzen ditu. Biziki errotua gelditzen bada ere, hirukotearen musika bere ibilbidearen arabera garatzen ari da, gaurregun musika tradizionalaren eta sonoridade modernoagoen arteko nahasketa bat eskaintzeko. Horren frogagisa, disko honen ekoizpenerako, Hugo Imakhoukhene-ren (Mak Jak) edo Pello Reparaz-en (Zetak) laguntza izan dute. Taldearen musika unibertsoa beti euskal kantuan oinarritzen bada ere, perkusioek eta doinu modernoagoek beste indar bat ekartzen dute.

C'est avec la sorti d'un nouvel album que le groupe fêtera ses 10 ans de scène, un album nommé « ARTIZAR » (Étoile du berger, Vénus). Toujours profondément enracinée, la musique du trio évolue tout au long de son parcours et propose aujourd'hui un mélange de musique traditionnelle basque et de sons beaucoup plus actuels, s'entourant pour la production de ce disque d'artistes comme Hugo Imakhoukhene (Mak Jak) ou encore Pello Reparaz (Zetak). Un univers musical toujours centré sur le chant basque, transcendé par des percussions et des sonorités modernes.

XOFALDIAK PRODUKZIOAK

Bañolet Kantuz

Egilea | auteur: Bloñ

Generoa | Genre : pop iup-hop

Bloñ taldearen « Bañolet kantuz » diskoak, Bañolet filmako kantuak biltzen ditu. Maia Iribarne Olhagarai eta Paxkal Irigoyen Etxeberrik filmaren harira sortutako musika projektua da. Lehen disko hau, musika arlo desberdinatik punpeka dabil; pixkanaka-pixkanaka, musika intimista batek animalien mundurat eta oihan ilun batera eramaten gaitu.

L'album "Bañolet kantuz" du groupe Bloñ regroupe la musique du film "Bañolet". Ce projet musical de Maia Iribarne Olhagarai Garmendia Sorhuet et Paxkal Irigoyen Etxeberri Lascaray Bidart est né dans la continuité de l'écriture et du tournage du film. Leur premier album explore plusieurs styles: une musique intimiste nous amène petit à petit vers un monde animal et nous entraîne dans la forêt sombre.



2021eko BERRITASUNAK

DISKOAK - Disques



Uhin galduak

Egilea | auteur: Diabolo kiwi

Generoa | Genre : funk-pop-rock

Uhin Galduak deitzen da Diabolo Kiwi Iaukote baxe-nafartarrak plazaratu berri duen lehen lan luzea. Diskoa 2020ko abenduan grabatu zuten Mungiako Magic Box estudioan James Morgan-ekin (Belako, Urgatz, Wicked Wizzard). Bi urte pasa dira "Kokinkeriak fini" lehen lan laburra Euskal Herri osoan aurkeztu zutenetik. Aurten berriz, aire ilunagoekin datoz, entzulea bidaia intergalaktiko batera gomitatuz.

Le quatuor bas-navarrais Diabolo Kiwi nous présente son premier album intitulé « Uhin Galduak ». Enregistré durant l'hiver 2020 au studio Magic Box à Mungia ils ont été accompagnés par James Morgan (Belako, Urgatz, Wicked Wizzard). Après avoir présenté un premier EP, "Kokinkeriak fini" (2019) à travers le Pays Basque, le groupe prend un virage plus sombre, naviguant dans des univers rock, pop, voire électro, sans renier pour autant ses rythmiques taquines et funky.

2021eko BERRITASUNAK

BESTELAKO EKOIZPENAK - Autres productions

BURU BELTZA ELKARTEA

2022ko agenda

Egilea | auteur: Buru beltza elkartea

Generoa | Genre : agenda

Urtero, Buru Beltza elkarteak egutegi berri bat proposatzen du Manex Buru beltza lekuko ardi arraza eta transhumantziaren promozioa egitego. Hizkuntzak: frantsesa/euskara

Chaque année, l'association Buru Beltza propose son agenda pour communiquer sur la race locale et rustique de brebis Manex Tête Noire (Buru Beltza en euskara), et soutenir ses projets. Langues : français/euskara

MAIATZ ARGITALETXEA


Maiatz aldizkaria 73

Egilea | auteur: Talde Iana · collectif

Generoa | Genre : Aldizkaria · Revue

Literatura sorkuntzaren ohiko bilduma, berrogei bat lagunen lanekin eta muga ezberdinak gaindituz.

La revue offre le recueil habituel d'une création littéraire réalisée par une quarantaine d'auteurs, franchissant diverses frontières.



SEASKA FEDERAZIOA



Seaska federazioko 2022ko egutegia


Egilea | auteur: Seaska

Generoa | Genre : 12 orrialdeko egutegia · calendrier 12 pages

Aurten, ikastolen egutegia Gilbert Glere argazkilariaren lanekin eta Euskal izendegiarekin osatua da.

Traditionnel calendrier des ikastola comportant un répertoire de prénoms basques et des clichés du photographe Gilbert Glere.

ZTK EKOIZPEN ETXEA



Izai magikoa

Egilea | auteure: Elodie Basagaiztegi Kurruxarri

Generoa | Genre : Kamishibaï

Adina · Age : 9 urtetik goiti · A partir de 9 ans

Joaierian formatua, artea maite du eta marrazkia bereziki.

Azken hamar urte hauetan haurzaindegian lan egin ondoren, gustu handia erakutsi du haurrendako ixorioak kondatzen, bai eta asmatzen ere.

Duela gutti, Kamishibai artea ezagutu zuen eta forma hortaz maitemindu zen. Izai Magikoaren ixorioa horrela sortu da, bere Kamishibaieko Butaï baten barnetik.

Formée en joaillerie, l'auteure aime l'Art et le dessin particulièrement.

En travaillant dix ans en crèche, elle a eu l'occasion de développer son goût pour conter des histoires puis à les créer.

Après avoir récemment découvert l'art du Kamishibaï, elle en est tombée amoureuse.

C'est comme cela qu'est née l'histoire d'Izai Magikoa, de l'intérieur d'un Butaï (support pour conter les Kamishibaï)



2021eko BERRITASUNEN KATALOGO HONEN EGILEA :

Ce catalogue des nouveautés 2021 est édité par:

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA · INSTITUT CULTUREL BASQUE

Lota jauregia

64480 UZTARITZE · USTARITZ

KATALOGOA ETA INFORMAZIO GUZIAK:

Le catalogue et toutes les infos:

www.durango.eke.eus

HARREMANETARAKO

Contact:

Maia Etchandy | maia.etchandy@eke.eus